

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

67/2020 Mozioa, urriaren 28koa, Arabako Errioxako mahastizaintzaren kostuaren ingurukoa

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko urriaren 28an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

67/2020 Mozioa, urriaren 28koa, Arabako Errioxako mahastizaintzaren kostuaren ingurukoa.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ezen lau hilabeteko epean egin dezala txosten tekniko xehatu bat Arabako Errioxako tarteko ustiategi batean mahastizaintzak dituen kostuei buruz, baso eta bizkarrekoa izeneko ekoizpen-ereduetan.

2. Arabako Batzar Nagusiek Elikagaien Informazio eta Kontrol Agentziari (AICA) eskatzen diote kontrolatu ditzala elikagaien katearen legean ezarritako eskubide eta betebeharrak, eta zehapen-prozedura antolatu edo abiatu dezala baldin eta lege horren urraketak antzematen baditu, eta areagotu ditzala ofiziozko ikuskaritzak, autonomia-erkidegoekin eta nekazaritzaren arloko antolakunde profesionalekin lankidetzan arituz.

3. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eskatzen diote ezen upategiek jasotzen dituzten eraldatzea eta merkaturatzea sustatzeko laguntzen oinarri erregulatzailaetan kontuan har dadila zein den ardoak ekoizteko erabiltzen duten Arabako Errioxako mahatsaren portzentajea.

4. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ezen, Eusko Jaurlaritzarekin batera, eskura dituen tresna guztiak erabiliz, aholkua, prestakuntza eta erraztasunak eman diezazkiela ardogileei ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-etekinak hobetu ditzaten.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 28a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA